

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroak turismo markak hautsi ditu uda honetan

*Foru Komunitateak turisten % 11 gehiago jaso du, eta era berean hazkunde handia izan du ostatu-gauei eta hotel-errentagarritasunari dagokienez 2015eko aldi berdinarekin konparatuta*

Osteguna, 2016.eko azaroak 17

Udak errekor-zifrak utzi ditu Nafarroako turismo-sektorearentzat, izan ere, estatuko nahiz nazioarteko turisten kopurua, ostatu-gauak, hotel-errentagarritasuna eta turismo-ostatu errentagarritasuna eta sektoreko langileen Gizarte Segurantzarako afiliazioak handitu baitira 2015eko aldi berdinarekin konparatuta.



Turista talde bat Erriberriko Santa María elizaren aurrekaldean.

Nafarroako Gobernuaren Garapen Ekonomikoko Departamentuaren Turismoaren Behatokiak jasotako datuen arabera, 2016ko uztailean, abuztuan eta irailean Nafarroak 544.813 turista hartu zituen, eta aurreko urtean 490.681 izan ziren; beraz, % 11ko hazkundera izan da. Igoera handi hori estatuko bidaiarietan -aurten 370.708 eta iaz 325.055, beraz % 14 gehiago- nahiz nazioarteko bidaiarietan -aurten 174.104 eta iaz 165.627, beraz % 5,1 gehiago- nabaritu da.

Foru Komunitatera egindako bisiten gehikuntza horrek era berean ostatu-gauean igoera ekarri du, % 11,1 handituz, eta 1.245.855 ostatu-gau fakturatuz.

### Enplegu gehiago eta hotel-errentagarritasun handiagoa

Enpleguaren datuak ere hobetu egin dira udako hilabeteetako kopuru onen ondorioz. Nafarroako ostatu-zerbitzuek, janari- eta edari-zerbitzuek, bidaia-agentziek eta turismo-operadoreek 2016ko udan 17.222 pertsonari eman zieten lana, eta horren ondorioz Gizarte Segurantzarekiko afiliazioak % 4 handitu ziren 2015eko aldi berdinarekin konparatuta.

Nafarroak udan 1.461 ostatu izan ditu batez beste, 34.667 oheko eskaintzarekin, iazko batez bestekoa baino % 2,5 handiagoa. Hotel-establezimenduen okupazioa asko handitu da, % 6,7 hain zuzen ere, apartamentuena % 5,8 eta landetxeena % 8,9. Bestalde, okupazioa % 1,5 jaitsi da aterpeetan eta % 11,8 kanpinetan. Udan hileko batez besteko egonaldia 2,29 egun turista bakoitzeko izan zen, 2015eko aldi

berdinekoaren oso antzekoa.

Hotel-errentagarritasunari eta turismo-ostatuei buruzko datuak ere iazkoak baino hobeak izan dira.

### **Nazioarteko erromes gehiago**

Uda honetan Nafarroatik igaro diren erromesen kopuruari dagokionez, nazioarteko erromesen kopuruaren igoera handia azpimarratu behar da, aurten 21.583 eta iaz 20.113 izanik, hau da, 2015ean baino % 7,3 gehiago. Estatuko erromesen kopurua, ordea, % 8,5 jaitsi da (aurten 9.931 eta iaz 10.859). Osorik hartuta, erromesen batez bestekoa iazko udakoa baino % 1,7 handiagoa da.

Bestalde, Nafarroako Gobernuaren Turismo Bulegoen Sareak turistek eta txangolariek bertan egindako 206.854 kontsultari eman die arreta, 2015eko aldi berdinean baino % 11,20 gehiago izanik. Nafarroako turismo-informazioari buruzko webgune ofizialak ere bere jarduera handitu du eta 740.980 bisita izan ditu, aurreko udan baino % 7,3 gehiago.

### **Urtarrila eta iraila bitartean metatutako datuak**

2016ko urtarrila eta iraila bitartean turismo-sektorean metatutako datuek adierazten dute Nafarroan turismoak goranzko joera duela. Urte arteko aldakuntza positiboa izan da bidaiarien nahiz ostatu-gauen kopuruari dagokienez iazko aldi berdinarekin konparatuta, hain zuzen ere % 7,8 handitu da bidaiarien kasuan eta % 8,9 ostatu-gauen kasuan.

Bisitari guztien artean, % 71,11 Espainian bizi ziren eta % 28,89 atzerrian. Alderdi honetan ere aldakuntza positiboa izan da, estatuko turisten kopurua % 8 handituz eta nazioartekoen kopurua % 7,8 handituz.